


Euskal AEn biztanle kopurua murriztu egin da 2022an, aurreko urtearekin alderatuta, eta 6.682 pertsona gutxiago dira

Galeraren % 68 Bizkaian izan da, eta Araban baino ez da pixka bat areagotu biztanle kopurua

Euskal AEn, 2022ko urtarrilaren 1ean, 2.186.517 biztanle daude; alegia, 6.682 pertsona gutxiago, 2021ean baino, Eustaten datuen arabera. Hala eusten zaio iaz hasitako joerari; orduan, biztanle kopurua, 2020arekin alderatuta, murriztu egin zen, eta 6.512 pertsona gutxiago ziren.

Biztanle kopuruaren beherakadarik handiena Bizkaian izan da, 2021ean baino 4.914 biztanle gutxiago baitaude; ondoren, Gipuzkoan, 716.616 biztanle baititu, aurreko urtean baino 2.271 pertsona gutxiago, eta Araba da (330.692 biztanle) biztanle kopuru handiagoa duen lurralde bakarra (+503 biztanle).

Biztanleen piramideak. 1992 eta 2022



2002aren eta 2022aren artean, Araban biztanle kopurua areagotu egin da, 43.132 biztanle gehiago; alegia, % 15 hazi da. Bolumenari dagokionez, ondoren Gipuzkoa dago, 39.709 biztanle gehiago baititu, baina, biztanleriari dagokionez, % 5,9 baino ez du egin gora. Bizkaia, berriz, beheradakaren buru izan da azken bi urteotan, 18.618 biztanle baino ez baititu irabazi aldi horretan, % 1,7.

Euskal AEko hiriburuen artean, Vitoria-Gasteizen baino ez da pixka bat areagotu biztanle kopurua 2021aren eta 2022aren artean (273 biztanle gehiago). Donostiak 319 biztanle gutxiago ditu eta Bilbok izan du beherakadarik handiena, 2.207 biztanle galdu baititu. Analisia aldi luzeagoan eginez gero, joera bera da. 2002. urteari begiratzuz gero, Bilboko biztanle kopurua murriztu dela eta, azken 20 urteotan, 6.162 pertsona gutxiago direla ikusiko dugu, eta Donostiakoa hazi egin dela (2.585). Bi hiriburu horietan biztanle kopuru handiena 2009an izan zen. Vitoria-Gasteizen, berriz, % 14,4 areagotu da azken hamarkadotan biztanle kopurua; lehen 216.926 biztanle zituen eta, orain 248.106.

Euskal AEko gainerako udalerriek dagokienez, nabarmendu behar da azken urtean erdiek baino gehiagok biztanleak galdu dituztela. Hala, biztanleen beherakada absolutu handiena izan duen udalerria, aurtan ere, Getxo da, 690 biztanle gutxiago baititu; alegia, % 0,9 gutxiago. Izurtza da ehuneko beherakada handiena izan duen udalerria, % 11,4koa; alegia, 29 pertsona gutxiago ditu. Beste muturrean, Sopela dago; 354 pertsona gehiago ditu, eta, hala, biztanle kopurua gehien handitu duen udalerria da (% 2,3).

2002 eta 2020 artean Portugaletetik, Getxok, Sestaok, Basaurik eta Santurtzik 20.194 biztanle galdu zituzten, guztira; biztanle kopuru handiena galdu zuten udalerriak izan ziren. Bizkaian Ondarroak eta Gipuzkoan Arrasatek eta Eibarrek ere bakoitzak 1.000 biztanle baino gehiago galdu zituen.

Eskualdeak kontuan hartzen baditugu, 2021etik 2022ra artean biztanle-galera handiena izan duena, hain zuzen, Bilbo Handia izan da, 4.541 biztanle gutxiagorekin; ondoren, baina oso urrun, Donostialdea (543 biztanle gutxiago). Gainerako eskualdeetan, Euskal AEko 20 eskualdeetako 6tan baino ez da biztanle kopurua hazi azken urtean, eta nabarmenezkoak dira Arabako Lautada -440 biztanle gehiago, % 0,2- eta Plentzia-Mungia -580 gehiago, % 1-.

2002arekin alderatzen badugu, Bilbo Handia izan da, berriro, biztanle-galera handiena izan duen eskualdea, 8.881 pertsona galdu baititu, eta hazkunderik handienak Arabako Lautadan -36.223 egoiliar gehiago-, Donostialdean -14.916 biztanle gehiago- eta Plentzia-Mungian -13.099 biztanle gehiago ditu, eta, hala, % 28,2 hazi da azken 20 urteotan- izan dira.

Euskal AE adinekoen proportzio handiena duen erkidegoetako bat da

Euskal AEko biztanleriaren batez besteko adina 45,5 urtekoa da, Espainia osokoa baino urte eta erditik gora handiagoa, eta, Europako herrialdeen artean, Italiak baino ez du gainditzen (bi urte handiagoa). 2002arekin alderatuta, batez besteko adina 3,8 urte handiagoa da. Sexuen arteko aldea 3 urtekoa da; izan ere, gizonen batez beste 43,9 urte dituzte eta emakumeek, adin aurreratuetako emakumezkoen biztanleria handiagoa denez, 47 urte. Lurraldeetan batez besteko adinak adinen egitura islatzen du: Arabako batez besteko adina erkidegokoa (44,5 urte) baino urtebete txikiagoa da; Gipuzkoa batez besteko horretara hurbiltzen da, baina azpitik dago (45,1), eta Bizkaia gainditu egiten du, 46,1 urtekoa baita.

2022an, Euskal AEk, % 23,2rekin, Espainian dauden 65 urteko eta gehiagoko biztanleen proportzioa (% 20,1) gaintitzen du, baina beste autonomia-erkidego batzuek proportzio handiagoak dituzte, % 25etik gorakoak, hala nola Asturiasko Printzerriak, Gaztela eta Leonek eta Galiziak. Europarekin erkatuz gero, Italiak baino ez du gaintitzen Euskal AEko proportzioa; 4 hamarren altuagoa baino ez da. Sexua kontuan hartuta, emakumeen artean 65 urteko eta gehiagoko proportzioa % 25,8koa da, eta gizonena, % 20,4koa.

Euskal AEko batez besteko ehunekoa 86 udalerri gaintitzen dute; 165ek balio bera edo txikiagoa dute. Gaintitzen dutenen artean, Bilbo, Donostia, Barakaldo eta Getxo daude; haietan, Euskal AEko biztanleria osoaren % 31,8 bizi dira. 2002an, 65 urtetik gorako biztanleak % 18,3 ziren, eta 163 udalerri zuten batezbestekoa baino ehunekoa handiagoa. Gainera, 2002aren eta 2022aren artean, 102 udalerri 64 urtetik gorako pertsonen proportzioak behera egin du, baina, haietan, biztanle kopuru osoaren % 5,1 baino ez da bizi.

Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuen, adin-talde handien arabera. 2022/01/01

	Guztira	0 - 19		20 - 64		>= 65	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	2.186.517	392.372	17,9	1.287.549	58,9	506.596	23,2
Lurralde historikoak							
Araba/Álava	330.692	62.944	19,0	195.585	59,1	72.163	21,8
Bizkaia	1.139.209	195.706	17,2	674.331	59,2	269.172	23,6
Gipuzkoa	716.616	133.722	18,7	417.633	58,3	165.261	23,1
Hiriburuak							
Bilbao	340.455	53.496	15,7	203.111	59,7	83.848	24,6
Donostia / San Sebastian	181.769	29.812	16,4	106.431	58,6	45.526	25,0
Vitoria-Gasteiz	248.106	47.189	19,0	146.400	59,0	54.517	22,0
Eskualdeak							
Añana	6.329	1.011	16,0	3.904	61,7	1.414	22,3
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	11.736	2.326	19,8	6.948	59,2	2.462	21,0
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	34.306	6.360	18,5	19.778	57,7	8.168	23,8
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	265.938	51.004	19,2	157.461	59,2	57.473	21,6
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.243	500	15,4	1.919	59,2	824	25,4
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	24.104	4.685	19,4	14.274	59,2	5.145	21,3
Bidasoa Behea / Bajo Bidasoa	77.042	14.010	18,2	45.339	58,8	17.693	23,0
Bilbo Handia / Gran Bilbao	852.635	141.297	16,6	504.417	59,2	206.921	24,3
Debagoiena / Alto Deba	62.489	11.676	18,7	35.637	57,0	15.176	24,3
Debarrena / Bajo Deba	54.863	10.466	19,1	31.109	56,7	13.288	24,2
Donostialdea	328.418	57.482	17,5	193.072	58,8	77.864	23,7
Durangaldea / Duranguesado	99.112	18.969	19,1	58.718	59,2	21.425	21,6
Enkartzazioak / Encartaciones	32.055	5.703	17,8	19.009	59,3	7.343	22,9
Gernika-Bermeo	46.032	8.320	18,1	26.588	57,8	11.124	24,2
Goierrri	67.914	13.825	20,4	38.997	57,4	15.092	22,2
Gorbeialdea / Etribaciones. del Gorbea	9.140	1.743	19,1	5.575	61,0	1.822	19,9
Markina-Ondarroa	25.769	4.510	17,5	14.861	57,7	6.398	24,8
Plentzia-Mungia	59.502	12.222	20,5	36.464	61,3	10.816	18,2
Tolosaldea	49.431	10.280	20,8	28.658	58,0	10.493	21,2
Urola Kosta	76.459	15.983	20,9	44.821	58,6	15.655	20,5

Data 2022ko Urriaren 27a

Iturria: Eustat. Biztanleen udal-errolaren estatistika

Alde nahikoa dago Euskal AEko udalerrietan bizi diren biztanleen adinari dagokionez, eta, zehatzago esateko, 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoari dagokionez; hura Irurako % 10,2ren eta Lagrango % 38,4ren artean dago. Lehenengoan ez ezik, beste lau udalerrian ere ehunekoa % 13tik beherakoa da: Alegria-Dulantzi, Baliarrain, Astigarraga eta Iruña Oka. 5 udalerrietan, guztira, 16.049 biztanle daude. Bestalde, beste bost udalerrian ehunekoa % 30etik gorakoa da: Eskuernaga, Iekora, Elantxobe, Sukarrieta eta Harana; guztira, 1.497 biztanle dituzte.

Eskualde-mailari dagokionez, Arabako Mendialdeak dauka adinekoen proportzio handiena, guztizkoaren % 25,4, eta ehuneko handiena duen hurrengo eskualdea Markina-Ondarroa da (% 24,8), eta Plentzia-Mungian baxuagoa, % 18,2koa.

Adin aurreratuenei dagokionez, 85 urteko eta gehiagoko pertsonak 2002an % 1,9 ziren eta, 2022an, % 4,1. Baina ehuneko horren banaketa oso bestelakoa da emakume eta gizonezkoen artean: Euskal AEn gizonezkoen biztanleen % 2,7k 85 urte edo gehiago dituzte, eta proportzio hori handiagoa da emakumeetan, % 5,5ekoa. 100 urteko eta gehiagoko biztanleetan, hazkunde-prozesua biziagoa izan da: 2002an adin horietako 394 ziren eta, hogei urte geroago, 878; % 88,3 emakumeak.

Euskal AEn 65 urteko eta gehiagoko 1,6 pertsona daude 16 urtetik beherako bakoitzeko, eta, hala, gainditu egiten da Espainiako ratioa, 1,3koa baita, baina, oraindik, Asturiasko Printzerrian dagoen 2,4ko erlazioetik urrun.

Erlazio hori 84 udalerri gainditzeko dute; zenbait udalerri muturreko kasuak dituzte, hala nola Moredak, Añanak, Mañuetak, Sukarrietak eta Haranak, erlazioa 4 baino gehiagotik 1erakoa baita. Beste muturrean, beste udalerri batzuk daude, hala nola Irura eta Baliarrain, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko 0 eta 15 urte bitarteko 2 gazte baino gehiago dituztenak.

Biztanleriaren adinaren araberrako banaketari dagokionez, muturrak Arabako udalerrietan daude, batik bat, haien tamaina txikiagatik eta edozein fenomeno demografikok, bereziki migrazioak, banaketa hori aldatzen duelako.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62